

..... ejan onartua
Gazkariak,

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA
GHKRI LAGUNTZA TEKNIKOA EMAN ETA
EPELEKO (BERGARA) KONPOSTATZE PLANTA
ETA TRANSFERENTZIA ESTAZIOA
ERAIKITZEKO OBREN ZUZENDARITZA
BURUTZEKO KONTRATUA ARAUTZEKO
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea ondoren aipatzen diren zerbitzuak prestatzea da:

I. GHK-ri laguntza teknikoa ematea.

Hurrengo eginkizunak barneratzen ditu:

- ❖ Ingeniaritza proiektuen kudeaketa. Batez ere, eta besterik baztertu gabe, Zubieta eta Epeleko proiektuen kudeaketa.
- ❖ Azpiegituren eraikuntzaren koordinazioa eta martxan jartzea.
- ❖ Proiektuak idaztearen koordinazioa, eta eraikuntza lanen jarraipena.
- ❖ Baldintza Teknikoen Agiria idaztea.
- ❖ Kontu teknikoetan Zuzendari Orokorrari laguntza ematea.
- ❖ Zuzendari Orokorrak expreski eskuordetutako funtzioak betetzea.
- ❖ Langileen ekintzak koordinatu eta gainbegiratzea, GHK-ren barne edo kanpokoak, bakoitzaren erantzukizunari dagokionean.
- ❖ Memoria teknikoen erredakzioa, eta balorazio teknikoen txostenak egitea.

II. Epeleko (Bergara) Konpostatze Planta eta Transferentzia Estazioa eraikitzeke Obren Zuzendaritza burutzea.

Zerbitzu honen bidez eskaini beharreko zerbitzuak ondorengoak izango dira:

A. Obra hasi aurreko lanak:

- 1) Obra planning-a onartzea. Kontratatik proposaturiko Obra Planning-a aztertuko da, edukia aintzat hartuz, eta beharrezkoak diren aldaketak adieraziz. Egindako balorazioa eta proposaturiko aldaketak Jabegoa eta Osasun eta Segurtasun Kudeatzailearen artean adostuko dira, eta Kontratatari jakinaraziko zaizkio.
- 2) Segurtasun Planaren onarpena egiaztatzea, eta lantokiaren irekiera.
- 3) Obrak hasi aurretik higiene eta segurtasun arauak betetzen direla egiaztatu beharko da.
- 4) Hondakinen Plana onartu beharko da.
- 5) Obraren zuinketa eta egiaztapen akta. SPKLTB-ak 229. artikuluan dioenaren arabera, obraren zuinketa egiaztatu ondoren, egiaztapen akta sinatu beharko da, honela obraren hasiera formalizatuz, eta exekuzio epeari hasiera emanik.

B. Obrak dirauen bitartean egin beharreko lanak:

- 1) Kontratuak dirauen bitartean egin beharreko lanak onartutako proiektuan adostutakoaren arabera, eta gaur egun indarrean dagoen araudi teknikoen arabera exekutatzeko ari direla egiaztatzea behar da.
 - i. Kontratatutako baldintzen arabera kontratuaren baldintzak betetzen ari diren gainbegiratu eta egiaztatzea epean jarraipenean enfasi berezia jarri.
 - ii. Exekutututako obraren zuzenbidea egiaztatzea.
 - iii. Obra Baldintza Agiriak, jatorrizko proiektua eta behar bezala baimendutako aldaketak jarraituz burutzen ari dela gainbegiratu eta egiaztatzea.
 - iv. Obra proiektua aldatzen ez duten alderdi eta xehetasunak jarraituz burutzen ari dela gainbegiratu eta egiaztatzea, baita kontratua arautzeko baldintza teknikoen agiriak Obra Zuzendaritzaaren esku uzten dituenak jarraituz ere.
 - v. Kalitate Kontrolaren erregistroa, laginak, entseguak, frogak, obra egiaztatzea, emaitzen analisiak, etab. aipatuz.
 - vi. Kalitate Kontrolaren jarraipena.
 - vii. Hondakinen Kudeaketa Planaren eta Ingurumen Planaren jarraipena.
 - viii. Hileroko txostenak idaztea, hurrengo hilabeteko 5. eguna baino lehen entregatuz, bertan, argi eta garbi, adierazi behar delarik lanaren garapena eta martxa.
 - a. Proiektua eguneratzea, sortzen diren aldaketekin.
 - b. Obraren sorturiko gertakariak eta horien ondorioak bai ekonomikoki baita epean ere.
 - c. Obraren planifikazioaren kontrola eta doikuntzak egitea.
 - d. Zertifikazioak onartzea, kontrol ekonomikoa eta aurrekontuaren egon daitezkeen desbideratzeak antzematea.
 - e. Kalitate kontrolaren eta Ingurumen Kontrolaren jarraipena.
 - f. Asteroko bisitetako akten kopia Eskumeneko Zuzendaritzak sinatuta.
 - ix. Obra Zuzendaritzak lan hauek guztiak bere egingo ditu, baita lehiaketaren baldintzetan zehazturiko lanak ere, eta obraren presentzia jarraitua izan behar du Kontratista eta Segurtasun eta Osasun Kudeatzailearekin harreman jarraitua izateaz gain exekutatu beharreko obrak koordinatzeko xedea betetzeko. Arrazoi honengatik alde ezberdinen artean bilerak egingo dira hitzartutako maiztasunarekin edo behar den bakoitzean, aktetan jasotako eta alde guztiei bidaliko zaizkie eta hileroko txostenetan jasotako dira.
 - x. Instalazioak martxan jartzea egiaztatzea.

- 2) Obran eguneroko presentzia izan beharko du eskumeneko Zuzendaritzak, Obra Zuzendariaren beraren aldetik edo behar adinako gaitasuna duen pertsonala izendatuta.
- 3) Obra Zuzendaria, sozietatearen ordezkaria izateaz gain, astean behin gutxienez obrako bileretara bertaratu beharko da.

C. As Built dokumentazioa egitea

- 1) Obrak amaitzean, hurrengo aspektuak erakutsiko dituen amaierako dokumentu bat idatziko da.
 - i. Hasierako proiektuari dagozkion aldaketak.
 - ii. Obran izandako gertakariak eta horiek obra eta aurrekontu planean izandako ondorioak.
 - iii. Kalitate Kontrolaren liburua, egindako entseguak eta jasotako materialak eta elementu aurrefabrikatuak barneratuz.
 - iv. Obra amaierako planuak egitea. Obra amaierako egoera islatuko duten planuen bilduma egingo da, exekutatuak izan ziren ordenean, ondoren GHK-k kudeatu ahal izateko zehaztasun nahikoa izango dutenak. Bilduma hau paperean eta euskarri digitalean emango da, dwg motako fitxeroan.
 - v. Instalazioak martxan jartzea egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - vi. Obraren harrera-akta.
 - vii. Obra Zuzendaritzaren likidazioa eta zertifikazioa.
 - viii. Kontratuz kanpo egongo dira eta GHK-k aparte ordainduko ditu Elgargoaren Oniritziaren ondorioz sortutako gastuak; ez ordea Erantzukizun Zibileko aseguruari dagozkionak.
 - ix. Obra Zuzendariaren Kilometro gastuak eta ezohiko gastuak GHK-k aparte ordainduko ditu; ez ordea Obra Zuzendaritzako gainontzeko partaideenak.

Obra Zuzendaritzatik at geratuko da Segurtasun eta Osasun Kudeaketa, GHK-k aparte kontratatuko duelarik.

2. KONTRATUARI ATXIKITUTAKO PERTSONAL TEKNIKOA

Lizitazaile-taldeak (enpresa, ABE eta kolaboratzaileak) profesional hauek izan beharko ditu gutxienez kontratu honen objektu diren zerbitzuei esleituta

I. GHKri laguntza teknikoa ematea:

Bide, Ubide eta Portuetako Goi Mailako Ingeniaria atxiki beharko du laguntza teknikoa emateko.

Honek Sozietateko Zuzendari Orokorraren aurrean erantzukizun zuzena izango du.

Profesional horrek honako baldintzak bete beharko ditu:

- Goi mailako titulazioa lortu zuenetik 10 urte baino gehiago igaro izatea.
- Lan-esperientzia bulego teknikoak egiaztatua.
- Eraikuntza arloari loturiko titulazio ofizialak aintzat hartuko dira.
- Euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna.
- Ingeleraz proiektuak eta jarduerak garatzeko hizkuntza horretan hitz egin eta idazteko gaitasuna izatea.

Eskatutako gaitasunak honakoak dira:

- Kudeaketa, antolaketa eta negoziaketarako gaitasuna izatea.
- Gaitasun eta zehaztasun analitikoa izatea.
- Lan taldean aritzeko gaitasuna.
- Lidergoa.
- Proiektuen kudeaketa.

Laguntza teknikoaren epeak eta dedikazioa:

- GHK-ko bulegoetan egon beharko du astean 16 orduz asteko 5 egunetik 3tan.
- Laguntza teknikoaren iraupena: 9 hilabete.
- Kilometraje gastuak eta ezohiko gastuak ez daude barneratuta kontratuaren prezioan.

GHK-ri Laguntza Teknikoa emateko atxikitutako profesionalak ondorengo funtzioak izango ditu.

- Ingeniaritza proiektuak kudeatzea.
- Azpiegiturak eraiki eta martxan jartzea.
- Proiektuak erredaktatu eta eraikuntza lanen jarraipena.
- Baldintza Teknikoen Agiria erredaktatzea.
- Azpiegiturak kudeatu eta ustiatzea.
- Aspektu teknikoetan Zuzendari Orokorrari laguntzea.
- Langileen ekintzak kudeatu eta gainbegiratzea bere ardurapean.
- Memoria teknioak idatzi eta balorazio teknikoen txostenak egitea.
- Giza baliabideen kudeaketa (barnekoak eta kontrataturikoak)

II. **Epeleko (Bergara) konpostatze planta eta transferentzia estazioa eraikitzeke obren zuzendaritza burutzea:**

Eginkizun hori hurrengo profesionalak egingo dute:

❖ **OBRA ZUZENDARIA**

Obra Zuzendaritzako lanak aurreko atalean GHKri laguntza teknikoa emateko proposatutako Goi Mailako tituludunak egingo ditu.

Profesional horrek bete beharreko baldintzak ondorengoak dira:

- Bide, Ubide eta Portuetako Goi Mailako Ingeniaria edo Industrian Goi Mailako Ingeniaria izatea.
- Goi mailako titulazioa lortu zuenetik 10 urte baino gehiago igaro izatea.
- Lan-esperientzia bulego teknikoak egiaztatua.
- Eraikuntza arloari loturiko titulazio ofizialak aintzat hartuko dira.
- Euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna.
- Ingeleraz proiektuak eta jarduerak garatzeko hizkuntza horretan hitz egin eta idazteko gaitasuna izatea.

Eskatutako gaitasunak honakoak dira:

- Kudeaketa, antolaketa eta negoziaketarako gaitasuna izatea.
- Gaitasun eta zehaztasun analitikoa izatea.
- Lan taldean aritzeko gaitasuna.

- Lidergoa.
- Proiektuen kudeaketa.



OBRAREN EXEKUZIORAKO ZUZENDARIA

Obra Exekuziorako Zuzendaritzako lanak Obra Publikoetako Ingeniari Tekniko batek, Arkitekto Tekniko batek edo Aparejadore batek burutu beharko lituzke.

Profesional horrek bete beharreko baldintzak ondorengoak dira:

- Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoa, Arkitekto Teknikoa edo Aparejadorea izatea.
- Beharrezko titulazioa lortu zuenetik 10 urte baino gehiago igaro izatea.
- Obra zuzendaritzan esperientzia izatea, bereziki hiri-azpiegitura eta hirigintza obratan, baita, gutxienez, industria eraikuntzako 10 proiektutan ere.
- Euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna.

Eskatutako gaitasunak honakoak dira:

- Kudeaketa, antolaketa eta negoziaketarako gaitasuna izatea.
- Gaitasun eta zehaztasun analitikoa izatea.
- Lan taldean aritzeko gaitasuna.
- Lidergoa.
- Proiektuen kudeaketa.

Aipatu profesionalen titulazio akademiko eta profesionalak titulu ofizialen kopia egiaztatuak aurkeztuta frogatu beharko dira.

3. EPEA

GHKri laguntza teknikoa ematea: **BEDERATZI HILABETE** esleipen-kontratua sinatzen denetik.

Epeleko (Bergara) konpostatze planta eta transferentzia estazioa eraikitzeko obren zuzendaritza burutzea: **SEI HILABETE** esleipen-kontratua sinatzen denetik.

4. PREZIOA

Kontratu honen lizitazioaren oinarritzko aurrekontua **EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EUROAN (199.999€)** finkatzen da eta kopuru horri gehitu beharko zaio dagokion BEZa.

Zehazki, kontratu honen objektu diren zerbitzu bakoitzari dagozkion zenbatekoak ondorengoak dira:

- GHKri laguntza teknikoa ematea: 30.000 €
- Epeleko (Bergara) konpostatze planta eta transferentzia estazioa eraikitzeko obren zuzendaritza burutzea: 169.999 €